



450 milioi ume arriskuan, desnutrizioa dela eta

Elikadura krisiari eta desnutrizioari aurre egiteko neurririk hartzen ez bada 450 milioi haurrek garapen fisikoan eta mentalean arazoak izango dituztela ohartarazi du Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak.

Erakunde horren arabera, 300 ume hiltzen dira orduro munduan desnutrizioa dela eta. Urtean 7,6 milioi haur hiltzen dira; heren bat (2,6 milioi), desnutrizioaren ondorioz.

Egoera horri aurre egitea lortzen duten umeek atzera bueltarik gabeko ondorio larriak pairatzen dituzte.

Gutxienez munduko 170 milioi umek garapenean atzerapenak dituzte, eskola errendimendu eskasa dute eta garaiera batez bestekoa baino txikiagoa dute.

Save the Childrenek salatu duenez, azken 20 urteetan desnutrizioaren kontra lortutako aurrerapausoak oso motelak izan dira eta aldaketa klimatikoak, elikagaien prezioen ezegonkortasunak, ziurgabetasun ekonomikoak eta aldaketa demografikoak hori gehiago moteldu dutela azpimarratu du.

Prezioak %1,2 jaitsi ziren joan den urtarrilean Euskadin

Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) %1,2 jaitsi zen joan den urtarrilean Euskadin eta urte arteko tasa %2ra iritsi da, INE erakundeak aste honetan jakinarazi dituen datuen arabera.

Prezioen hileko jaitsiera Jantziak eta oinetakoak sektorean izandako murrizketari zor zaio batez ere, %14,8 jaitsi baitzen. Aisia eta kultura (-%2,3) eta Komunikazioak (-%2,1) sektoreetan ere jaitsi ziren prezioak, eta Medikuntzan ez zuten aldaketarik izan. Aitzitik, prezioak igo egin ziren Garraioan (%1,8).



GERTAERAK

3.005€ko isuna getxotar bati adingabekoentzat edari alkoholikoak erosteagatik

Getxoko Udalak 3.005 euroko isuna jarri dio 26 urteko neska bati, adingabeko batzuentzat edari alkoholikoak erosteagatik.

Gertaera otsailaren 4ean, 20:00ak aldera, izan zen. Udaltzaingoak Romoko supermerkatu batetik dei bat jaso zuenean, ohartarazteko neska gazte bat edari alkoholikoak erosten ari zela, ondoren dendatik kanpo zeuden adingabe batzuei emateko. Udaltzainak bertaratu ostean, 14 urteko bost adingabeen gurasoei deitu zieten beren semeak likore botilak hartzen ari zirela agertzeko. Ondoren erosketa egin zuen gaztea, 26 urteko M.K.G.T. inisialduna salatu zuten. Neska horrek 3.005 euroko isuna ordaindu beharko du legea hausteagatik, edari alkoholikoen salmentaren eta horniduraren mugei dagokienez.

Gorlizko Fauna Basatia Sendatzeko Zentroak 14 animalia askatuko ditu

Gorlizen dagoen Fauna Basatia Sendatzeko Zentroko arduradunek 14 animalia askatuko dituzte ostiralean, otsailaren 17an, Txorierrin eta Enkarerrietan. Gainera, larunbatean, otsailaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiko Base Gorriko langileek gauza bera egingo dute Bermeoko portuan urtarrilean aurkitu zuten itsas txakurkume grisarekin. Foru Aldundiko zentroan konjuntibitis akutua sendatu ondoren, lehorretik lau miliatara askatuko dute foka, Matxitxako aurrean.

Mundakak 1,1 milioi ordainduko dizkio labar batetik jausi zen gizonari

Mundakako Udalak 1,1 milioi euro ordainduko dizkio 2008ko apirilaren 27an Laidatxu inguruan dagoen baranda bat apurtu eta itsaslabarrera jausi ostean tetraplegiko geratu zen gizon bati.

Dena den, Mundakako Udalak Ingurumen Ministerioaren aurkako ekintza legalak hasiko dituela azaldu du, bere ustez erantzukizuna ministerio horrena baita. Hori dela eta, istripu horren ondorioz eragindako kalteak ordaintzeko eskatuko dio.

Udalak defendatzen duenaren arabera, istripua gertatu zen lekua itsasoaren eta lurraren arteko mugan dago, eta horrek barandaren instalazioaren eta mantentze lanen ardurapetik kentzen du.



Londresek dopinaren kontra borrokatzeko laborategia aurkeztu du

Londres 2012 Olinpiar Jokoetako antolatzaileek dopinaren kontra borrokatzeko laborategia aurkeztu dute. Harlown dago, Londres ekialdean, eta 6.250 dopin proba egingo dituzte bertan.

150 ikertzaile adituk lan egingo dute bertan, eguneko 24 orduetan.

Hugh Robertson Britainia Handiko Kirol ministroak adierazi duenez, "dena Olinpiar Jokoen zuzentasuna zaintzeko izango da".



Athletic izoztu egin da Moskun

Athleticek galdu egin du Moskuko Lokomotiven aurkako neurketa Errusian (2-1). Zeroz azpitik 8 graduko temperaturarekin jokatu da neurketa eta elurra maramara bota du batez ere lehen zatiaren hasieran. Bizkaitarrek lehen zati oso ona jokatu eta gol bateko abantaila lortu dute atsedendia baino lehen. Baina bilbotarrek bigarren zati eskasa egin dute eta Moskuko taldeak markagailua irauli du.

Fitxa teknikoa:

Lokomotiv: Guillerme; Shiskin, Belyayev, Burlak, Yanbayev; Torbinsky (Obinna, 67. minuto), Zapater, Glushakov (Ozdov, 88. minutua); Maicon (Sichov, 89. minutua), Tarasov eta Caicedo.

Athletic: Iraizoz; Iraola, Javi Martinez, Amorebieta, Aurtenetxe (David Lopez, 78. minutua); Iturraspe, De Marcos, Herrera; Susaeta, Llorente eta Muniain.

Golak: 0-1, 35. minutua: Muniain. 1-1, 61. minutua: Glushakov (penalti). 2-1, 71. minutua: Caicedo.

Eureka!- Museoak Fernando Alonsoren azalean sartzera gonbidatzen gaitu

Donostiako Eureka! Zientzia Museoak hiru simulagailu berri estreinatu ditu. Guztien artean arreta gehien erakarri duena Bat Formulako simulagailu ikusgarria. Jarduera hauetarako prezio bereziak jarri ditu museoak.


INAUTERIAK Ostegun gizona, ostiral mehea... Dagoeneko ia Euskal Herri osoa murgilduta dago inauteri giroan. Lotsak etxean utzi eta bakoitzak nahi duen mozorroa jartzeko egunak heldu dira, jada.

SCIENCE AND TECHNOLOGY

AND

E PUR SI MUOVE

Galileo Galilei, was born in Pisa on February 15, 1564. Galileo is considered by many to be the father of modern science. A physicist and mathematician, Galileo helped establish the scientific method, which is based on observation and experiment.



EGURALDIA

Larunbatean, eguerdi aldera termometroak 13 °C-ra iritsiko dira; lehen orduak, berriz, hotzak izango dira. Zerua hodei gutxirekin hasiko da eta egun eguzkitsua gailenduko da. Iluntzetik aurrera ordea, fronte berri bat gerturatuz joango da eta gauean, zerua lainotuz joango da berriro ere. Igandean, beraz, lainotua izango da eta euria ager daiteke.

